

## 10 urte autogestioarekin esperimentatzen

### **KOMUNITATE**

#### **IREKIA GARA**

Profesionalez osatutako komunitatea gara, eta pertsonen eta beste espezieen bizimoduak, harremanak eta bizilekuak eraldatzeko proiektuak garatzen ditugu.

KO- aurrizkia lotura

komun gisa:

kolektiboa,

kolaboratiboa,

kooperatiboa,

komunitarioa... eta

izaera esperimental

eta eraldatzailea

daukagu.

### **TOPAGUNEA GARA**


Askotariko eragile eta diziplinen arteko elkarrizketa eta hibridazioa bilatzen ditugu, aurrean dauzkagun erronka konplexuei eta trantsizioei heltzeko.

### **BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOTIK**

Tokiko, estatuko eta nazioarteko sare formal eta informalen parte aktiboa gara.

Tokiak eta baliabideak partekatzen ditugu, harremanak lantzen ditugu, eta kolektiboki ikasten dugu. 2014tik, elkarlaneko jarduerari bide ematen diegu.

### **ANTOLATUTA GAIKIDE**



Soziokrazian

oinarritutako **eredu**

**propioa da,**

**elkarlanekoa eta**

**autogestionatua,**

izaera horizontala eta banatua duena, eta

zaintzak erdigunean jartzen dituena.

Eredua beste ekimen batzuekin ere modu irekian partekatzen da.

**Soziokraziaren**

**oinarrizko egiturari eutsi**

**dio, eta zaintza-,**

**sormen- eta**

**komunitate-geruzak**

gehitu ditu, ekintza

guztietan ikuspegi

gizatiarra, kolaboratiboa

eta sortzailea txertatuta.

**Esperimentu praktikoa**

**eta bizia** da: bost urteko ibilbide honetan aurrera

egin du antolaketa-

egitura gisa ez ezik, baita elkarlaneko eta

elkarsorkuntzako

ekosistema gisa ere.

Bidean, Wikitokiko kideen parte-hartze esanguratsu eta jasangarria sustatu du.